

Etxepare Lizeoa

25 IKASLEK ESTREINATUKO DUTE LANBIDE HEZIKETA SAILA

Bernat Etxepare Lizeoak Lanbide Heziketa saila zabalduko du 2017-2018 ikasturtean. Areago, egoitza berria estreinatuko du Baionan bertan. 280 ikasle inguru ari dira ikasten gaur egun eta 25 gehiago ariko dira lanbide heziketan. Lizeoko Héléne Charritton zuzendariak azaldu dizkigu proiektu berriaren nondik norakoak.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIA: DANI BLANCO

3.400 ikasle ari dira Seaskan. Iparraldeko ikastolen elkarrekin 34 ikastetxe kudeatzen ditu: hamar ama-ikastola, hogei lehen maila, hiru kolegio eta lizeo bat. Ikasturte berrian lau kolegio izanen ditu orotara. Gainera, Lanbide Heziketa saila zabalduko du. Sail berria zabaltzearen ideia bi oinarritan finkatuta dago: administratiboan eta pedagogikoan. Lizeoen finantzamendua Akitania Eskualdearen ardura da. Ordea, lanbide heziketa ez dago eskola pribatuetan oso garatuta: “Bi lege daude indarrean, Falloux eta Astier legeak. Lehenak ikastetxe pribatuei laguntza murrizten die, besteak, alderantziz, heziketa profesionala garatzeko diru asko ematen du. Kontseilu Nagusiak gure proiektua zazpi milioi euroz finantzatu du”, adierazi digu Bernat Etxepare Lizeoko Héléne Charritton zuzendariak.

Lizeoak 25 urte bete ditu aurten. Due-la bi urte, eremu teknologikoan sail bat zabaldu zen lizeoan. Kari horretara, Seaskak Lanbide Heziketa saila garatzea proposatu zion eskualdeko hezkuntza ordezkariari: “Akitania Berriko Kontseiluarekin, hezkuntza errektoretzaren bidez, hitzarmen bat adostu dugu lizeo profesionala egungo lizeoaren eraikun-

tzan aterpetzeko”. Legeak kontraesantetan izaten dira sarritan. Falloux eta Astier legearen aurkakotasuna da adibidea. Alta, borrokaren poderioz irtenbideak atzematen dira administrazioaren eta irakaskuntzako eragileen artean; Seaskaren lana da horren lekuko.

Administrazioarekin landutako kudeaketaz batera, Seaskako arduradunek berealdiko arreta jarri behar izan dute eremu pedagogikoan: “Seaska aspaldi ohartu da ikasleak galtzen dituela Kolegiotik Lizeora bidean. Ikasle horien kopurua emendatuz joan da, erditik gora (%50-60) lan mundu profesionalera joan ohi da, eta horiek gurekin ikasten segitzea nahi dugu. Proiektu berri honenkin Baxorainoko euskarazko hezkuntza ziurtatzea dugu helburu”, erran digu solaskideak. Baxoa –*Baccalauréat* frantsesez– goi-mailako ikasketak egin ahal izateko ezinbestean eskuratu behar den titulua da. Frantzia oro har eta Ipar Euskal Herrian orobat, ikasleen %25-30ak Lanbide Heziketan jarratzen ditu bere ikasketak. Iparraldeko lizeoetan 10.000 ikasle inguru ari dira. Horietako 280 ari dira Etxepare Lizeoan.

Lanbide Heziketa sail berri honen hastapena da Etxepare Lizeoan. Eki-

men berrien hasiera ez da erraza izaten, pedagogikoki tentuz landu behar da. Konparaziorako, ikasleek Baxo orokorra eskuratzeko hiru arloren artean aukuratu dezakete: literatura, ekonomia eta zientzia. Seaskan horiek landu dira 25 urtez: “Baxo teknologikoan aldiz, hamar arlo daude, horien artean 100 titulu ezberdin baino gehiago eskuratu ahal dira. Guk horien adar bat garatu nahi dugu: enpresen munduari loturikoa. Batzorde batek beharrak identifikatu ditu eta lanbideak definitzen hasteko ideia hauek hartu ditu kontuan: euskara baloratua izatea ikasketetan, baita enpresetan ere. Hala berean, mutiko eta neskentzat aukera berak izatea”.

Bide xumea hartu dute abiapuntuan. Industria eta laborantza arloko Baxo tituluen aukera alde batera utzi dute. Lehen arloa garatzeko bitarteko mekaniko handiak behar direlako, eta bigarrena ongi finkatua delako Iparraldean: “Arlo horietan ari direnekin lehiatzea –frantsesez ari direnekin, alegia– ezi-nezkoa litzateke”.

Seaskak beraz, hiru sailletako Baxo profesionala lantzea proposatzen die ikasleei: 1. Merkataritza, laborantza-ko salmenta alorrean. 2. AVS titulua



Seaskak hiru gai proposatzen dizkie ikasleei Baxo profesionala lantzeko: merkataritza laborantzako salmantan, eskoletarako laguntzaileen AVS titulua eta ikus-entzunezko ekoizpenak.

(Auxiliaire de vie scolaire / Eskoletarako laguntzaileak). Seaskak jende anitz kontratatzen du AVS lanposturako. 3. Ikus-entzunezko ekoizpen ikasketak.

Frantziako Hezkunde Nazionalak ez du oraindik onartu hirugarren saila. AVSrako zazpi ikaslek izena eman dute jada. Merkataritza sailean lau ikasle matrikulatu dira. Ez dira aski saila zabaltzeko, baina ziur daude gehiago egongo direla. Kolegioetan ari diren hainbat ikaslek lizeo orokorrera pasatzeko zailtasunak dituzte eta lanbide heziketa egitea proposatu zaie. Hots, hemen-dik aitzina, frantses ikastetxetara joan beharrean, Seaskan izanen dute ikasteko aukera. Hurrengo urteetan ikasleek gai orokorrak –euskara, frantsesa, matematika edota historia– ikasiko dituzte beste ikasleekin batera eta lanbide hezi-

ketaren berezko sailean ariko dira baxo profesionalaren titulua eskuratzeko.

Etxepare Lizeoaren egoitza berria

Lizeoak egoitza berria estreinatuko du datorren ikasturtean. Baionan izanen da, orain dagoen ingurumarian. Eguno egoitzan, berriz, kolegio berria izanen da. Kanbo, Ziburu eta Larzabaleko kolegioaz beste, laugarrena izanen da Baionan. Lizeo orokorrean 280 ikasle ariko dira eta 25 Lanbide Heziketan. Ikasle horiek hamalau orduko praktika espezifikoa jasoko dituzte astean. Bi irakasle berri behar dira horretarako, eta dagoeneko horien profila lantzen ari dira berauek kontratatzeko.

Lanbide Heziketa saila zabaltzean Hego Euskal Herriko irakaskuntzari begira aritu dira proiektuaren arduradu-

nak: “Gure lehen xedea Hegoaldeko ikastetxeekin harremana lantzea izan da. Iparraldean praktikak euskaraz egitea nekeza baita. Praktiken heren bat bideratu nahiko genuke Hegoaldean. Donostiako Xabier Zubiri-Manteo ikastetxearekin ari gara elkarlanean”, erran digu Charrittonek.

Hala ere, Hegoaldeko gizarteak frantses hizkuntzarekiko hartu duen jarrera eskasak arranguratzen du Etxepare Lizeoko zuzendaria: “Ingelesak aitzina hartu dio frantsesari”. Bere ustez, bi aldeetako herritarren arteko harremanak normalizatzeko, frantsesak iraganean izan duen munta berreskuratu beharko luke. Lanbide heziketaren garapenerako begi-bistakoa omen da hori: “Hiru urteren buruan ikusiko dugu gure proiektua nola garatu den, alabaina, guretzat mugaz gaindiko dinamika bultzatzeko eleaniztasuna baitezpadakoa da: euskara lehenik, eta gaztelania eta

frantsesa ondoren ikusten ditugu. Hiru hizkuntzen uztarketa landu beharko genuke, euskara lehenesten eta beste biak landuz aldi berean. Gure ilusioa da gure ikasleak Hegoaldera bideratzea eta alderantziz, hangoak hona etortzea. Harreman normalak urraska garatzea, ingelesarekiko indartu den exotismoa gibelean uzteko behingoz”.

Edonola den ere, Seaska elkarteak ez dago kexu. Hegoaldeko irakaskuntzako eta herri erakundeetako hainbat eragilerekin batera ari da. Oiarzun eta Segurako herrietako zenbait enpresaren sostengua ukan dute, baita Errenteriako ikastolaren diru laguntza jaso ere: “Eragile askoren harrera bikaina izan dugu proiektua bideratzeko, sostengatuak sentitzen gara; esker oneko hitzak ditugu haientzat guztientzat”. ■

BABESLEA: IBARRAKO UDALA



IBARRAKO
udala



San Bartolome plaza, 2
20400 Ibarra
www.ibarra.eus
EUSKARA ZERBITZUA:
☎ 943 673 827